



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Segururaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalarenegoktza.araba.eus/experta/validacion/Doc?entidad=ARRAZUA>
m0144708b0321512a7607e8076080e25M

ARRATZUA-UBARRUNDIAko UDALA
(ARABA)



AYUNTAMIENTO DE
ARRATZUA-UBARRUNDIA
(ALAVA)

Uribea, 12 01520 (Durana) IFK/ CIF: P-0100900-J Tfno. : 945-299516 / Fax: 945-299602

BANDOA

Hiru hilabetez lorezaintza- eta igeltserotza-lanetarako bi pertona kontratatzea: (iraila/abendua)

Herritar guztiei jakinarazten zaie laster bi pertona kontratatuko direla lorezaintza- eta igeltserotza-lanetarako, hiru hilabetez eta lanaldi erdian.

1. Kontratu beharreko pertonen betekizunak:

1.1 Langabea izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egotea.

Programa honen barruan ezin izango dira kontratu honako pertona hauek:

- Kuadrillako edozein udalek kontratatutakoak, 2023ko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdietan.

- Korporazioko kideekin edo kontratu beharreko langileak hautatzen dituzten pertonekin ezkontideak, ondorengoak eta ahaidetasun, odolkidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko harremanak dituzten gainerako ahaideak, bigarren mailara artekoak barne.

1.2 Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako deialdia denez, hautagaiek Arratzua-Ubarrundiako udalerrian edo Gorbeia Inguruetako Kuadrillako beste edozein udaletan errolatuta egon beharko dute, gutxienez 6 hilabeteko antzinasunarekin. Lehentasuna emango zaie beti udalerrian errolatutako pertsoneri.

1.3 Lanak udalerrri osoan egingo direnez, interesdunak B motako gidabaimena izan beharko du eta ibilgailua eduki beharko du edo beste garraibide bat duela frogatu beharko du.

2.- Kontratazioen ezaugarriak

- Kontratu kopurua: bi (2)
- Lanaldia: lanaldi erdia, 9: 00etatik 13:00etara.
- Iraupena: hiru (3) hilabete.
- Zereginak: Osasungarritasun- eta segurtasun-arrazoiak direla-eta, premiazko mantentze-lanak behar dituzten udalerriko zonak egokitzea. elementu txikiak eta ondasunak konpontzeko obra txikiak. Lorezaintzako eta segako lanak sartzen dira, bai eta lorategietako eta bideetako sastrakak

| | | |
|-------------------------------------------------------------------|--------------------|------------------|
| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por: | Kargua / Cargo: | Data / Fecha: |
| MARIA BLANCA ANTEPARA URIBE (AYUNTAMIENTO DE ARRATZUA UBARRUNDIA) | Alkatea / Alcadesa | 21/08/2024 14:40 |



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honekin: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenagotza.araba.eus/expertav/validacion/Doc?emitted=ARRAZUA>
m0144708b0321512a7607e8076080e25M



garbitzea ere kale, errepide eta bideetan. Gainera, hustubideak eta bestelako mantentze-lanak garbitzen saiatuko gara.

- Soldata gordina: 893,00 €, gehi udalerrri barruko joan-etorrietarako kilometrajea, Durana jatorrizko herrizat hartuta.

3.- Hautaketarako:

Hautaketa Lanbide Enplegu Zerbitzuko peoi orokorraren kategorian izena eman duten pertsonen artean egingo da, eta hautaketa-prozesua bi bloketan banatuko da: emakumeak eta gizonak. Bloke batean hautagai-zerrendarik aurkezten ez bada, beste bloketik bi pertsona aukeratu dira.

4.- Baremazioa.

Baloratu beharreko baldintzak/Requisitos a valorar:

- 55 urtetik gorakoak: 15 puntu
- Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonak: 25 puntu
- Adina:
 - 35 urtetik beherakoak 2 puntu
 - 45 urtetik gorakoak 3 puntu
- Iraupen luzeko langabeak: 7 puntu.
- Euskara (gutxienez B1) 5 puntu
- Bete beharreko lanpostuarekin lotutako lanbide-esperientzia (puntu 1* hilabete), gehienez 25 puntu.
- Bete beharreko lanpostuarekin lotutako prestakuntza (puntu 1* 10 ordu), gehienez 15 puntu.
- Kozizaziopeko langabezia-prestaziorik ez jasotzea: 3 puntu.
- Udalerrian erroldatuta egotearen antzintasuna:
 - 6 hilabetetik 2 urtera, biak barne: 1 puntu
 - 2 urte baino gehiago: 2 puntu

Puntuazioekin zerrenda bat egingo da puntuazio-ordenaren arabera, multzo bakoitzeko kontratazio-ordena ezartzeko. Puntuazio handiena lortzen duten pertsonak proposatuko dira kontrataziorako. Berdinketa gertatuz gero, lanik gabe denbora gehien daramana hartuko da.

Interesdunek Lanbide enplegu-zerbitzuan izena emanda egon beharko dute, eta 162024009493 zk.ko eskaintza-zenbakiaz galdetu beharko dute Norteko Trenbidearen kaleko 2. zk.ko bulegoetan.

Elektronikoki sinatutako dokumentua